

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. ENPLEGUA AKTIBATZEKO RPOGRAMA. RAJOY-REN NEURRI ATZERA KOIEI BABESA EMATEKO AKORDIOA
2. ERRETIRO-PENTSIOEN EGUNERAKETA
3. DIBIDENDU BANAKETAN ERREKORRA, GEHIENGOARI ESKUBIDEAK LAPURTZEN DIZKIGUTEN BITARTEAN
4. LGSREN IGOERA, LANGILE KLASEARI IRAINA
5. C HEPATITISA ETA PATENTEAK
6. PROPOSAMENA: GREZIA, SISTEMAREN LOGIKA HAUSTEKO AUKERA

1. ENPLEGUAKTIBATZEKO PROGRAMA. RAJOY-REN NEURRI ATZERA KOIEI BABESA EMATEKO AKORDIOA**A.- Sarrera**

2014ko abenduaren amaieran lanik gabeko 213.000 pertsona zenbatu zituzten Lanbidek eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak. Horietatik %55,5ak ez zuen langabeziagatik inolako prestaziorik jasotzen, ez kotizaziopekoa, ez laguntzazkoa.

Azken urteetan langabezia asko hazi da (80.000 pertsona gehiago 2008 amaieratik hona), eta langabezia-prestazioen estaldura zeharo moztu dute (2008an lanik gabe zegoen biztanleriaren %34,7 babesik gabe zegoen; gaur, aldiz, %55,5, alegia, babes gabekia 20 puntutik gora hazi da). Langabezia eta babes gabekia hainbeste gehitu izanaren zergati nagusia erakundeen doikuntza eta murrizketa politikak dira (besteak beste, langabezia-prestazioetan erabakitakoak).

Politikak aldatu ordez, Rajoyren gobernuak bereari euste aldera enpresarioen elkarteekin, CCOO eta UGTrekin babesak bilatu du. Horrenbestez, joan den uztailaren 29an "Hazkunde ekonomikoa eta enplegua indartzeko hiruparteko negoziatziorako proposamenei buruzko akordioa" sinatu zuten. Beste puntu batzuren artean, euren esanetan lehentasunezkoa zen -eta Autonomia-Erkidegoen lankidetzaren omen zuten- "Enplegurako Aktibatze Programak". Hau pasa den abenduaren 15ean zehaztu zen, eta 2014ko abenduaren 20ko BOEan argitaratu zuten. Teorian aldi baterako programa hau "*aldi baterakoa, berariazkoa eta ohiz kanpokoa da, eta luzaz lanik gabe izan diren pertsonen zuzentzen zaie*", baldin eta "*enplegua aktiboki bilatzen ari badira eta langabezia-babesak eskaintzen dituen aukerak agortu badituzte.*"

B.- Programaren ezaugarri nagusiak

- Laguntza gehienez 6 hilez luzatuko da, eta zenbatekoa 426 € izango da.
- Onuradunak lanik gabeko pertsonak izango dira, honako eskakizunak betetzen dituztelarik:
 - Enplegu-eskatzaile gisa izen emanda egotea 2014ko abenduaren 1ean; eskaria egiten den data aurreko 18 hilabeteetan gutxienez 360 egunez egoera horretan izatea beharrezkoa da.
 - Kotizaziopeko laguntzazko langabezia-babesa edota gizarteratzeko errenta aktiboa jasotzeko eskubiderik ez izatea.
 - Lana egin bada, norbere borondatez utzi ez izana.
 - Hileko konputuan LAGSaren %75etik gorako diru-sarrerarik ez izatea, aparteko bi ordainsarien zati porportzionala kenduta eta behin familiarrak kargura izatea probatuta.
 - Prestazio, gutxienerako errenta (RGI edo RAI) edo laguntzaren bat jaso bada, hau amaitu zenetik gutxienez 6 hilabete igaro izana.
 - Ez da langabe gisa aintzat hartuko besteren kontura lanaldi partzialean diharduen inor.
 - Jarduera konpromiso bat sinatzea; egiaztatzea gutxienez hurrengo hilabetean enplegua bilatzen saiatuko direla (adibidez, kurrikulumak banatu izana, lan elkarrizketak egitea...) eta proposatzen zaizkien enpleguratzeko hobekuntza eta enplegua bilatzeko ekintza guztietan parte hartzea.
 - Izen emateko eta eskariak egiteko

epea 2015eko urtarrilaren 15etik apirilaren 15era izango da.

- Programatik aldi baterako edo behin betiko kanporatzeko zioak zehaztuko dira.
- Laguntza jasotzea bateragarria izango da honakoekin:

- Enplegurako lanbide-heziketa ekintzetan parte hartzeagatik jasotako laguntzak.

- Besteren konturako lana, arlo publikoan salbu, lanaldi partzial edo osoan, iraupen mugagabe edota tenporala duela ere, gehienez 5 hilabetez. Epealdi horretan enpresarioak laguntza ekonomikoaren zenbatekoa legez edo hitzarmenez langileari dagokion soldataren zenbatekotik kenduko du.

3.- Ondorioak

Behin Plana, egoera eta langabezia eta estaldura datuak aztertuta, ELA honako ondorioetara iritsi da:

- Laguntza honek ez du hobetuko enpleguratzeko gaitasuna, ezta langabeen egoera ekonomiko eta pertsonala ere, oso jende gutxi laguntzeko izango baita; bere oinarria porrot egin duten irizpideak dira, orientazio, prestakuntza eta birgaitze profesionalari dagokienez. Gainera, epe laburreko neurri bat da.
- Balizko onuradunei ezarritako eskakizunak neurrigabeak dira. Hain ugariak eta zorrotzak izanik, ia ezinezkoa da onuradun izatera iristea.
- Ezin da onartu laguntza enpleguarekin

bateragarria izanik enplegu-emailearen mesederako izatea; laguntzak soldata kutsua du. Horrela kontratu prekarioak diruz laguntzen dira, sarri legez iruzurrean eginda direlarik.

- Errege Lege-Dekretuak ez du esaten aurrekontuetan Programarako zenbat diru izango den, eta ez dago ere argi zein partidatan kokatuko den. Gobernuak urteko kostua 1.000 milioi eurotan finkatu baino ez du egin. Kopuru hori aldiz, enplegu zerbitzu publikoak langabezi prestazio gastuan izandako jeitsiera baino askoz txikiagoa da. Azken datu ofizialen arabera, azaroan enplegu zerbitzu publikoak 1.928 milioi euro bideratu zituen langabezi prestazioen ordainketara, 2012ko azaroan baino 764 milioi euro gutxiago.
- Autonomia-Erkidegoei programa hau kudeatzea eta, ahal den heinean, bere finantzaketan parte hartzea leporatzen zaie. Erabaki honek berez iritsi ezinik dauden zerbitzuak, Lanbide kasu, gainez egitera bultzatzen dituzte, dagoeneko ez nahikoak direnean.
- Gai honekiko EAEk eta Nafarroak duten eskumena zalantzan jartzen da. ELArentzat Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak honi buruz egin duten kritikak sinestezinak dira, Madrilen erabakiak hartzen dituen subsistema baten parte izatea onartu baitute. Gainera kritikarekin koherente izango balira, besteak beste, Elkarrizketa Sozialeko mahaietan kargu hartu beharko liekete erabaki hauek Rajoyrekin hitzartu dituzten sindikatu eta enpresario-elkarteei.
- Berriro ere akordio honekin agerian geratu da gobernuentzat “elkarrizketa soziala” zer den: mugimendu sindikaleko batzuek gobenur edozein izanda ere, herritarren benetako

beharrizanak asetzen ez dituten erabakietan laguntzaile izatea.

2. PENSTIO ERREFORMA AURRERA DOA

2011ko pentsio erreformak erretiro adina atzeratzeaz gain, pentsio jasotzeko eskubidea izateko baldintzak zorrotz gogortzea suposatu zuen. Hori dela eta, 2015ean 65 urterekin eta %100a jasotzea erretiratu nahi duenak, 35 urte eta 9 hilabete kotizatuak izan beharko ditu. Horrela ez bada, erretiroa 65 urte eta 3 hilabetetara luzatu egin da (beti ere, 35 urte kotizatuak izanez gero).

2013tik, erretiro adinak urteroko hilabete bateko haziera izan du eta horrela jarraituko du progresiboki, 2027an erretiro adina 67 urtetan finkatu arte. Pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko epea 2022rarte urteko urtebete gehituko zaio, 2022an 25 urte izanik.

Erretiro partzialaren kasuan, 2015an 61 urte eta 3 hilabeteekin erretiratu ahal izango da baldin eta 33 urte eta 9 hilabete kotizatu badira, 33 urte izanez gero 61 urte eta 6 hilabete adina baita.

Erretiro aurreratuaren kasuan, borondatezkoa eta derrigorrezkoa bereiztu beharra dago. Lehenengo kasuan, langilea 63 urte eta 3 hilabeteekin erretiratu ahal izango da baldin eta 35 urtez kotizatu badu eta beti ere, ezarritako koefiziente murriztaileak aplikatuz. Derrigorrezkoan (iraizpen eta gutxienez 6 hialbetez langabezian egondako kasuak), pertsonak erretiroa eskatu ahal izango du 61 urte eta 3 hilabeteekin 33 urtez kotizatu badu. Azken kasu honetan salbuespena badago, 61 urtekin erretiratzea. Beti ere, langileak 2019ko urtarrilaren 1aren aurretik urteak bete beharko ditu eta bai hitzarmen kolektiboan edo erregulazio espedienteak egon bada horrela jaso bada eta Gizarte Segurantzaren jakinarazita.

3. DIBIDENDU BANAKETAN ERREKORRA, GEHIENGOARI ESKUBIDEAK LAPURTZEN DIZKIGUTEN BITARTEAN

Datuek pertsona asko hilaren bukaerara ez dela iristen erakusten duten bitartean, enpleguak prekarioagoak direnean, eta aberastasun gehiago esku gutxiagotan pilatzen den bitartean, espainiar burtsak Europako errentagarriena bezala itxi du 2014 urtea.

Enpresa kotizatuek inoiz baino dibidendu gehiago banatu dituzte, 42.200 milioi euro, 2013an baino %81 gehiago, eta 2009ko azken errekorra %27an gaintitu du. 93 enpresa kotizatuk baino gehiagok banatu dituzte. Enpresa hauek berain akziodunekin dituzten "obligazioak bete" dituzte, langileei eta lanik ez dutenei beraien soldatak, prestazioak eta eskubideak murriztuta ikusten edo galtzen dituzten bitartean.

Ekonomia espekulatzailentzat errekuiperatzen da, gainontzekoentzat guztiz kontrakoa, lan baldintza eta bizi baldintzen galera. Desberdintasunak areagotzen ari direnaren beste adibide bat.

4. LGSREN IGOERA, LANGILE KLASEARI IRAINA

2014ko azken Ministro Kontseiluak lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) %0,5eko igoera onartu zuen. Honi igoera deitu badiezaiokegu. LGS 3 euro haziko da eta hilean 648,6 eurokoa izango da (urtean 9.079,37 euro).

2014an KPI negatiboa izateari esker (%1 murriztu zen), Rajoyren gobernuak propaganda egiten du esanez "igoerak apalak dira, baina KPI zero edo negatiboa izanik, eros ahalmen handiagoa dute eta jendea hobeto egongo da". Baina errealitateak erakusten du azken bost urteetan LGSak eros ahalmen galera handia izan duela. LGSaren 2011 eta 2015 urteen arteko

igoera metatua %1,6koa izan da soilik, prezioak (KPI) %7,5 igo ziren bitartean. Beraz, LGSren araberako dirusarrerak dituztenek, hau da, gizarteko alor kaltetuenean, 5,9 puntuko galera izan dute beraien eros ahalmenean.

	2011	2012	2013	2014	2015	2011-15
LGS	0	0,6	0	0,5	0,5	+1,6
KPI	3	2,4	2,9	0,2	-1	+7,5

Lastima Rajoy presidentea hilean 648 euroekin ez bizitzea hain ona den igoeraz disfrutatzeke. Horrelako komentario iraingarriek erakusten dute lehentasuna ez dela pertsonen bizi kalitatea hobetzea, nahi duten gauza bakarra klase enpresarialari mesede egiten jarraitzea da.

5. C HEPATITISA ETA PATENTEAK

Osasun publikoaren funtzionamendua nolakoa den argi uzten ari da C Hepatitisaren inguruan sortu den krisiak:

- Alde batetik, industria farmazeutikoak duen boterea eta gobernuek hauekiko duten mendekotasuna erakusten du.
- Beste alde batetik, osasun arloko politika publikoa negozio pribatuen interesen araberakoa dela ikusten da, eta ekonomia osasunaren eta pertsonen biziaren aurretik lehenesten dela.

Baieztape hauek argi ikusten dira C Hepatitis, GILEAD multinazionala eta Sovaldi botika uztartzen dituen aferan.

Azken aste hauetan mobilizazioak eta itxierak egiten ari dira C Hepatitis duten pertsonak.

Hau gobernuek (nahiz estatukoak nola Nafarroakoak eta Gasteizkoak) arrazoi ekonomikoengatik (tratamendua ez ordaintzeko), eta ez osasun arrazoiengatik, gaitz honen aurkako tratamendu berri baten erabilera murrizten ari direlako da.

Tratamendu honek beste edozein tratamenduk baino arrakasta portzentaje altuagoa du, denbora gutxiago behar du eta ondorio gutxiago sortzen ditu.

Baina botika hau murrizteko arrazoia daukan prezio garestia besterik ez da. Botikaren patentearen jabe den GILEAD multinazionalak (eta honen akzionista diren inbertsio funtsek) ezarritako prezioa.

GILEAD multinazionalak estatuan 25.000 eurotan eskaintzen du tratamendua. Guztiz gehiegizkoa eta neurritz kanpokoa da hau, izan ere, honen kostua 50 eta 100 euro tartekoa da.

Multinazional honek nahi duen prezioa ezarri dezake patentearen jabea delako. Hau dela eta prezio ezberdinak ditu botika berberak, hala nola 69.000 euro EEBB edo 750 euro Indian. Espekulazio hutsa.

Madrilgo Gobernuak esan duenez, botika honetan egingo duen gastua 125 milioi eurotako izango da. Beraz, C Hepatitisak jotako 5.000 pertsonak izango dute tratamendua, berehala tratamenduaren beharra dutenak 30.000 direnean.

Estatuan 650.000 pertsona inguruk tratamendu honen beharra izango dutela kalkulatzen da. Eta munduan zehar 150 milioi pertsona baino gehiago dago C Hepatitisak infektatuta. Honek suposatzen du munduko gaixo guztiak tratatzea 9 bilioi eurotako onura suposatuko liokeela GILEAD enpresari (hau da, Alemania, Frantzia, Espainiar Estatuak, Erresuma Batua eta Italiaren

BPGd-a adina). Negozioa izugarria da.

Multinazional farmazeutikoen negozioa ikaragarria da. Eta hauek duten indarra baita ere. Gobernuetan eta politiketan duten eragin handi hau enpresa hauek botere politikoarekin eta ekonomikorekin duten loturaren bidez bakarrik ulertu daiteke.

Enpresa hau, GILEAD, adibide garbia da. Bere zuzendaritzan Estatu Batuetako Estatu Idazkariak izan dira, hala nola Donald Rumsfeld eta George Shultz, edo Condoleeza Rice bezalako pertsonak, Etienne Dabignon (Belgikako Ministro ohia), Bildelberg Club-eko kideak, eta abar.

GILEADeko zuzendaritzako kideen ordain-sariak ikaragarriak dira (GILEADeko Presidente den John Martinek 170 milioi dolar irabazi zituen azken urtean). Beraz enpresaren kotizazioak gora egiteko duten interesa ere ikaragarria da.

Enpresak gora egitea, batik bat, patente politikak zenbait botiken monopolioa izatea ahalbideratzean datza. Eta hori ez aldatzeko interesa handia dute.

Enpresa hauetako interesak eta boterea oso handiak dira. PPren Gobernuak C Hepatitisaren inguruan sortu duen "adituen batzordeko" kide guztiak GILEAD enpresarekin harremanen bat izateraino iristen da (bai enpresa honek finantzatzutako kurtsoak ematen dituztelako, GILEADek finantzatzen dituelako beraien ikerketak edo beste edozein harremanengatik).

Pertsona askoren osasuna eta bizitza ezin da jokoan jarri gutxi batzuen lukurreria medio zenbait botikei neurri gabeko prezioak jartzeagatik.

Patenteen politika multinazional hauek osasunarekin eta diru publikoarekin negozioa egiteko pentsatuta dago. Enpresa handien

monopolioa ahalbideratzen du (patenteak erosten dituztelako) patenteekin espekulatu dezaten.

Beharrezkoa da politika honekin bukatzea eta botikak osasun irizpideen arabera banatzea, eta ez negozioagatik. Botikak bezain oinarrizkoak diren elementuen ikerkuntza, merkaturatzea eta garapena ezin da negozio kapitalisten esku geratu. Patenteen desjabetzea botika generikoak prezio onargarri batean egiteko beharrezkoa den aukera bat da.

6. PROPOSAMENA: GREZIA, SISTEMAREN LOGIKA HAUSTEKO AUKERA

Azken urteetan Grezian gertatu denak argi asko adierazten du Troikaren doikuntza politikak miseria dakarrela. Europar Batzordeak, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eta Europako Banku Zentralak (EBZ) osatzen duten talde horrek agindutako muturreko politika neoliberalak ezarrita (pribatizazioak, biztanleriaren sektore handiak osasun publikorik gabe uztea, hitzarmen kolektiboak indargabetzea...) bermatu egin nahi da negozioak egiteko eta enpresen etekinak ugaltzeko aukera, baita bankuen eta hartzekodunen interesak lehenetsi ere.

Greziar herria horren ondorio latzak pairatzen ari da. Kaleetan bizi den egoera datu bidez ikusaraztea zaila da, baina kopuru batzuk argigarriak dira:

- Langabezia tasa %23,7koa da (gazteena, berriz, %57koa). Langabeen kopurua 2,2 bider hazi da. Haatik, zenbaki latz hauek are handiagoak lirateke emigrazioa izan ez balitz.
- BPGd-a 2010 eta 2014 bitartean %17,6 urritu da.
- Pobrezia asko gehitu da. Haurren

artean, 2008ko %23tik gaurko %40ra.

- la hiru pertsonatik bat osasun-zerbitzua izateko eskubiderik gabe utzi dute. Gainera, besteei murrizketa handiak ezarri dizkiete (eskubide gutxiago, berrordainketa, etab.).

Aipatu ohi diren Troikaren erreskateak benetan gobernuei emandako maileguak dira, hots, interes eta guzti itzuli beharreko dirua. Gainera, kreditu hauek jaso ahal izateko gobernuak hitz eman behar du erabaki jakin batzuk hartuko dituela (horri deitzen zaio “kondizionalitatea”, oro har bankuei dirua ematea eta hainbat eratako erreformak, aurrekontuak, eskubide sozial edo laboralak murrizteko). Gobernuentzako abantaila bakarra, kreditu hauen interes-tasak merkatukoak baino txikiagoak direla.

2010ean Troiak Greziako gobernuari 110.000 milioi euroko kreditu bat eman zion. 2011n 130.000 milioiko beste kreditu bat sinatu zen. Gaur, urtarrilaren 25eko hauteskundeetako emaitzen baitan, litekeena da beste kreditu bat negoziatzea. Kopuru hauek zenbatekoak diren jabetzeko, kontutan izan dezagun Greziako BPGd-a orain 182.000 milioi euro inguru dela.

“Erreskate” politika honek ondorio sozial latzak ez ezik, beste bi efektu eragiten ditu:

- Batetik, zor publikoa puzten du. NDFaren arabera, Greziaren zorra 2014an BPGd-aren %174 adina zen; 2009an %130an zegoen. Zor pribatua zor publiko bilakatu dute.
- Greziar zor publikoaren %80 honez gero gobernuen edo nazioarteko erakundeen esku dago (zeinek Troikaren kredituak ematen dituzten). Bestalde, nazioarteko banku pribatuek 2010etik hona honelako zorra %55 murriztu dute.

Edonork daki Greziako zor publikoa ordaindu ezinekoa dela. Azken urteetako erabakiekin arazoa areago okertu da, helburu batekin: Bere garaian Latinoamerikan bezala, zorra ez ordaintze horretatik salbu utzi nahi dituzte hartzekodun pribatuak (bereziki bankuak), biztanleria guztiaren lepotik.

Aipatu dugu urtarrilaren 25ean Grezian hauteskundeak izango direla. Troiak (Juncker, Merkel, Gabriel, Renzi, Rajoy, Moscovici, etab.) datorren gobernuari exijitzen ari zaizkio orain arte sinatutako konpromiso guztiak bere gain hartu behar dituela. Bestela esanda, bozkatzeko eskubidea badago, beti ere politikak ez aldatzekotan. Hori esaten dutenek ez dute, prezeski, demokrazia zer den aintzat hartzen.

Greziako hauteskundeok oso garrantzitsuak dira Troikaren politika antisozialak amaitzea nahi dugunontzat. Syrizaren balizko garaipenak aukera emango luke zalantzan jartzeko Grezian eta Europar Batasun guztian zehar ezartzen ari diren politikak.

Europar agintarien beldurrik handiena da Greziako gobernu berriak alde bakarreko erabakiak hartu eta sistemaren *status quo*-a hankaz gora jartzea (alegia, beren sistemak ezarritako arauak haustea: aurrekontu-kontrola, osasungintza eta hezkuntzari zorraren ordaina lehenestea...). Esate baterako, Syrizak bere programan dioenean zorraren auditoria bat egin behar dela, erabakitzeko beraren zein zati den zilegizkoa eta zein ez, aukera sortzen da zilegizko ez den zatia ez ordaintzeko, edota gobernuak ordaintzeko prest dagoen zatia berregituratzeko. Haatik, hau ezarritako sistemaren mugetatik harago joatea litzateke.

Kapitalaren zerbitzura daudenen beldurra da gure itzaropena. *Status quo*-arekin eten beharra aldeztu dugunoi sarri esaten digute proposatzen duguna ezinezkoa dela. Alabaina, Greziak erakuts dezake, Ekuador, Argentina

edota Islandian gertatu zen bezala, sistemaren logika baztertzea egingarria dela, eta gainera erabaki ona. Areago, hori Europar Batasunean ere gerta litekeela.

Horregatik, jendea beldurtu nahi dute. Grezian eta Europa guztian. Beren burua demokratizat hartzen duten horiei gauza bat exijitu behar diegu: greziar herriaren erabakia errespetatu dezatela, eurek nahi dutena ez bozkatuagatik ere. Ez litzateke hain zaila izango.